

## MUko Bibliotekak webgune berria du

2008/09/16

Bere diseinu berriari esker bibliotekak eskaintzen dituen informazio, baliabide eta zerbitzuen atzipena errazagoa eta argiagoa izango da.

Nobedadeen artean aipagarria da bibliotekako material ez bibliografikoa erreserbatzeko aplikazioa (ordenagailuak, talde lan gelak, ordenagailu eramangarriak eta bideo-kamerak erreserbatzeko). Honekin batera informazio errekurtsu berriak ere eskaintzen dira (Source Elite datu-basea, Elsevierren liburu elektronikoen Referex bilduma), eta baita ere eduki eta atal berriak (gomendatutako bibliografiaren atala, bibliografía idazteko arauena, inpaktu-adierazleena).

Bibliotekaren eginkizuna informazio-baliabideak eskuratu eta hedatzea da, unibertsitateko ikasle irakasle prozesuak eta ezagutza garatzeko beharrezkoak diren informazioa eta baliabide teknologikoak eskainiz.

